

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin-behineko onarpena ematea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2016ko irailaren 7ko ohiko bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren eta gehiengo osoz, behin-behineko onarpena eman zion ordenantza hau aldatzeari:

- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz, hasierako onarpenaren erabaki hau jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratuta, interesa duen edonork erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan. Erreklamazio edo iradokizun horiek udalbatzak ebatziko ditu. Iradokizunik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko onarpen hau behin betiko onarpen bihurtuko da, udalbatzaren berariazko beste erabakiren beharrik gabe.

Maeztu, 2016ko irailaren 13a

Alkate-lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA